


IKASTARO MONOGRAFIKOA

BILAKAERAREN PSIKOLOGIA EGOKITZEA INGURUMEN HEZIKETAN TALDEAK GIDATZEKO



2010eko iraila

Ingurumen Heziketarako Museoa

Urtxintxa Aisialdi Eskola



sanpedrokoingurumen
heziketarakomuseoa



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

DATAK ETA SAIOAK

Irailak 17, ostirala: 16:30 – 20:00
Irailak 18, larunbata: 9:30 – 14:00
Irailak 24, ostirala: 16:30 – 20:00
Irailak 25, larunbata: 9:30 – 14:00



LEKUA

Ingurumen Heziketarako Museoa.

Errotazar k., zk.g. – 31014

- TOKIAK MUGATUAK DIRA. ALDEZ AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DA.
- PREZIOA: 36,00€*

**Iruñeko Udalaren prezio publikoak erregulatzen dituen arauak ezarritakoa.
Museoan galdetu prezioa murrizteko baldintzak.*



ARGIBIDEAK eta IZEN-EMATEAK
Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 eta 17:30-20:00
Larunbatetan: 10:00-13:00 / Igandeetan, itxita

**sanpedrokoingurumen
heziketarakomuseoa**

San Pedroko monasterio zaharra
Errotazarko kalea, zk.g. 31014 Iruña
948 149804 / Faxa: 948 123721
museoeducacionambiental@pamplona.es
www.museoambientalpamplona.com

Ikastaro monografiko honen helburua taldeekin lan egiten duten pertsonen prestakuntza handitzea da, batez ere alor ez formalean eta ingurumen heziketan aritzen diren pertsonena.

Bertan, aplikagarriak diren baliabide eta metodologiak eskainiko dira, taldeekin egindako lana aberasgarriagoa egiteko, hala talde horiek gidatzen dituzten pertsonentzat nola parte-hartzaileentzat.

BILAKAERAREN PSIKOLOGIA EGOKITZEA INGURUMEN HEZIKETAN TALDEAK GIDATZEKO

Talde batekin egin beharreko jarduera bati ekin baino lehen, taldearen berezitasunak, interesak, motibazioak, etab. zeintzuk diren pentsatu behar dugu. Bilakaeraren psikologiak pertsonen bizitzan zehar izaten diren aldaketa psikologikoen prozesuak aztertzen ditu.

Diziplina honek taldean lan egiteko laguntza ematen ahal digu, egin beharreko jarduera prestatzen hasten garen unetik jarduera egin eta ebaluazioa egin bitarte. Izan ere, mezua motibagarria eta erakargarria izaten lagun dezake, eta, beraz, hartzaileek errazago jasotzen ahalko dute.

Helburuak:

- Haur eta nerabeen bilakaeraren etapa ezberdinak ezagutzea.
- Bizi dituzten garapen une ezberdinak ulertzea.
- Afektuzko loturak duen garrantziari buruz gogoeta egitea.
- Monitore eta hezitzaile gisa dugun paperaren kontzientzia hartzea.
- Hezkuntzan esku-hartze positibo eta kalitatezkoa egiten ikastea.
- Jolasa eta bizipenak ikasteko tresna gisa erabiltzea.

Edukiak:

1. Bilakaeraren psikologia: etapa bakoitzaren ezaugarri bereziak.

Haur eta nerabeen jarrerak ulertzea.

- Errefortzu positiboa
- Zigorra, azken aukera
- Arauen eginkizuna

Diziplina eta afektua giro sozio-afektiboan

- Autonomia

Ikasketa partekatua

- Ekintza positiboen ondorio positiboak
- Teoria konduktistak

Jolasa, tresna gisa

Imitazioa, tresna gisa

2. Kasu praktikoak.

3. Ingurumen heziketa etapaz etapa egokitze baliabideak.

4. Komunikazioaren garrantzia. Mezua.

Ikastarorako prestatutako metodologia aktiboa, partizipatiboa eta bizipenetan oinarritua izanen da. Parte-hartzaileek galdetegi bat erantzun beharko dute ikastaroa egin baino lehen, eta bertan adieraziko dute zer nolako beharrak eta esperientziak dituzten lanean, ikastaroaren gaiari loturik.